

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

#### **Euskaltegiei 2016-2017 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik diru-laguntzak emateko deialdia**

2016ko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak, euskaltegiei 2016-2017 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik diru-laguntzak emateko deialdia.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespena eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk.- argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 4an

*Euskara Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ**

#### **1. Deialdiaren xedea eta esparrua**

Euskaltegiei 2016-2017 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik, elkarren arteko lehiaren bidez, diru-laguntzak emateko deialdia eta prozedura arautzea dute xede oinarri hauek.

#### **2. Finantzatzea eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen ildotik ematen diren diru-laguntzak 2016/0171.3351.48003, Euskaltegiertzako diru-laguntzak, aurrekontu partidaren kontura joango dira, eta gehienezko kreditua 99.000,00 eurokoa izango da.

#### **3. Onuradunen betebeharrak**

Ikastegi homologatu gisa HABEren (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) erregistroan izena emanda dauden hiriko euskaltegiek eskatu ahalko dituzte oinarri hauek arautzen diren diru-laguntzak, diruz laguntzen den aldian —2016-2017— Gasteizko udalerriari jardun eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 13. artikulua xedatutakoak betetzen badituzte.

#### **4. Eskabideak, aurkezteko epea eta agiriak**

##### 4.1. Eskabideak:

Diru-laguntza eskabideak 0. eranskineko erredua baliatuz aurkeztu beharko dira.

#### 4.2. Aurkezteko epea eta lekua:

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan –San Antonio kalea, 10; astelehenetik ostiralera, goizeko 8:30etik 14:00etara– aurkeztu beharko dira eskabideak, eskatutako agiriekin batera. Herritarrei laguntzeko gainerako bulegoetan (gizarte-etxeetakoak, eta abar) ere aurkez daitezke, baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako erregistro eta bulegoetako edozeinetan ere.

#### 4.3. Eskabideekin batera ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Ikastegiaren jarduerak deskribatzen dituen oroit-idazkia (2016-2017 ikasturtekoa).

b) Euskaltegia ikastegi homologatu gisa HABEren erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) HABEk emandako ziurtagiria, 2015-2016 ikasturtean, diru-laguntzaren gai denaren aurrekoan emandako eskola-orduen kopurua adierazten duena. Talde bereziei dagozkien orduak –funtzionarioentzako, enpresentzako, haurrak eskolan dituzten gurasoentzako programak eta abar– bazter utzi beharko dira, baita hiritik kanpo emandakoak eta HABEren diru-laguntzarik ez dutenak ere.

d) Eskatzaileak zergak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduak dituela egiaztatzen duten agiriak.

Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz egiaztatuko du Gasteizko Udalak onuraduna egunean dagoen.

e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen onuradunaren zinpeko aitortpena.

### 5. Eskabideetako akatsak zuzentzea

Eskatzen diren datuetako edo agirietako bat edo gehiago falta badira eskabidean, erreke- rimendua egingo zaio onuradunari, 10 egun baliioduneko epean hutsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkez ditzan. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua xedatutakoaren arabera, ebazpena eman ondoren.

### 6. Balioespen-irizpideak

HABEk emandako ziurtagiria, 2015-2016 ikasturtean, diru-laguntzaren gai denaren aurrekoan emandako eskola-orduen kopurua adierazten duena; talde bereziei dagozkien orduak –funtzionarioentzako, enpresentzako, haurrak eskolan dituzten gurasoentzako programak eta abar– bazter utzi beharko dira, baita hiritik kanpo emandakoak eta HABEren diru-laguntzarik ez dutenak ere.

### 7. Diru-laguntza emateko prozedura

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuak egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena Tokiko Gobernu Batzarrari, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua ildotik eratuko den kide anitzeko organo baten birtatez. Diru-laguntza emateko edo ukatzeko proposamena egingo du organo horrek, oinarrietan ezarritako irizpideekin bat. Euskara Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak edo ordezkari izendatzen duen pertsonak, Euskara Zerbitzuko buruak edo ordezkari izendatzen duen pertsonak eta Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute organo hori.

## 8. Diru-laguntza onartzea eta konpromisoak

Eskatzaileek diru-laguntza emateko erabakiaren jakinarazpena helarazten zaien egunaren biharamunetik kontatuta 10 eguneko epean kontrakorik adierazten ez badute hura onartu dutela ulertuko da.

Diru-laguntza jasotzen dutenek, horiek onartu ondoren, jasotako fondoak zertarako eman diren helburu zehatz horretarako baliatu beharko dituzte.

## 9. Lankidetzak

Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartuko du bere gain programa honen baitan eskaria egiten duen elkarte orok.

Lankidetzak horren arabera, udalaren ekipamenduak erabili ahal izango dira jarduerak antolatzeke. Horrelakoetan, kasu bakoitzari dagokion hobaria eman ahal izango da tasetan, edo ordaintzetik salbuetsi, ekipamendu bakoitzaren arau espezifikoak hori baimentzen duenean. Hala ere, eskatutako kanpo-zerbitzuak ordaindu beharko dituzte onuradunek.

Euskara Zerbitzuak ekintza eta programa horien zabalkundea egin dezake Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitako programa eta egitarauetan, edozein kasutan ere erakunde antolatzailea zein den argi adierazita.

## 10. Beste diru-laguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publikok edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, baldin eta horren ondorioz finantzaketa gaitzen ez bada.

## 11. Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Ordainketa bakarrean emango da diru-laguntza, deialdia ebatzi ondoren, alde aurreko ordainketa gisa eta justifikazioa aurkeztu aurretik, diru-laguntzari lotutako jarduerak burutu ahal izateko ezinbesteko finantziarioa delarik, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 18.4 artikularekin bat.

Diruz lagundutako jarduera burutzeko epea amaitu ondoren, gehienez, 3 hilabeteko epean, diruz lagundutako jardueraren ehuneko ehuna —eta ez bakarrik Udalak emandako kopurua— justifikatu beharko du onuradunak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren ildotik, baita justifikatze kontua osatzen duten agiri hauek aurkeztu ere:

a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren barruan gauzatutako jarduerak deskribatzen dituen oroit-idazkia.

b) Burututako jardueren kostea justifikatzeko memoria ekonomikoa. Honako hauek adierazi beharko dira:

b.1. Egindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zeinean datu hauek zehaztuko baitira: hartzekoduna, zenbatekoa, emate-data eta ordainketa. II. eranskineko ereduari jarraituko zaio.

b.2. Diruz lagundutako jarduerari dagozkion faktura originalak, edo bestela, horien kopia erkatuak, kopiak benetakoak direla eta jatorrizkoak eskuragarri daudela egiaztatzen duen agiriarekin batera, I. eta III. eranskinetan ageri diren ereduak jarraiki.

Jaso-izanaren agiriak beste modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zurrizteko bakarrik onartuko dira, eta, edonola ere, jaso-izanaren agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaria edo profesionala izan, hala balitz faktura egin eta ematera behartuta bailegoke.

Jaso-izanaren agiriak honako datu hauek jasotzea behar ditu:

— Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbideak

- Ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza eta guztizko prezioa
- PFEZren atxikipena (Ogasunean egindako ordainketaren agiria erantsi)
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura

Pertsonal gastuak. Pertsonal gastuak zurrizteko, nomina aurkeztu behar da eta Segurantzaren TC2 dokumentua. Nominarekin eta TCekin batera taula bat ere erantsiko da nomina guztien zerrendarekin, VII. eranskinean ageri den ereduari jarraiki. Pertsonal gastuen taula horrek data eta onuradunaren sinadura eta zigilua izan behar ditu. Soldatapeko langilerik ez badute, V. eranskina bete beharko da.

b.3. Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egotzen dizkion zeharkako kostuen aitortpena, kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere diru-laguntzaren kopuruaren ehuneko 10 baino gehiago izan.

b.4. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren bestelako diru-sarrerara edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.

b.5. Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, IV. eranskinean ageri den ereduari jarraiki.

b.6. Proiektua hainbat erakundek finantzatu badute, edo baliabide propioekin egin bada, gastu hori justifikatu eta egiaztatzea beharko da. Halakoetan, azken justifikazioarekin batera, Udalak emandako VI. eranskinaren araberrako adierazpena aurkeztu beharko da, eta, izenak emanez, diruz lagundutako proiektuari egotzen zaizkion gastuak oro zerrendatu. Ez da beharrezko eranskin honetan zehaztutako fakturak aurkeztea. Aurkezten dituen erakundeak data jarrita, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko dira adierazpen horiek.

b.7. Diru-laguntzei buruzko Legearen 31.3 artikulua betetze aldera onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak 18.000,00 euro gainditzen baditu —ondasunak hornitu edo zerbitzuak eskaintzeko bada—; edo 50.000,00 euro gainditzen baditu —obra kontratua bada—.

Aurkezten diren fakturen edo agirien zenbatekoak, guztira, ordaindutako diru-laguntza osoa hartzen ez badu, edo diruz lagundutako proiektua gauzatzetik izan ez bada, hala jakinarazi beharko da, eta dena delako diru kopurua Gasteizko Udaleko Diruzaintzara itzuli.

Honako kasuetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: erakunde onuradunak Udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik.

Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

## 12. Zeharkako gastuak

Honelakoak joko dira zeharkako gastutzat: erakundearen beraren mantentze gastuak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza), eta kudeaketa eta laguntza langileen kostua. Oro har onartzen diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraiki zentzuzko den neurrian egotzi beharko dizkio kostu horiek diruz lagundutako jarduerari onuradun den erakundeak, eta, beti ere, koste horiek jarduera burutzen deneko aldiari dagokion neurrian. Egotzen diren zeharkako gastu horiek ezingo dira izan, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren zuzeneko gastuen ehuneko 10tik gorakoak. Kostu horiek ez dira agiri bidez zurrizteko beharko.

## 13. Onuradunaren betebeharrak

a) Diruz lagundutako jarduera burutzea.

b) Ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea diru-laguntza eman duen organoaren aurrean, baita jarduera burutu dela eta diru-laguntza ematea edo eskuratzea ekarri zuten helburua bete dela ere.

c) Organo emaileak burutzen dituen egiaztatze jardueren mende jartzea, baita organo eskudunek burutu ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroletarako jardueren mende ere, eskatzen zaion informazio oro emanaz.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu ahala Udalari jakinaraztea.

e) Aplikagarri den merkataritza eta sektore legediak eskatzen dituen kontabilitate liburuak, erregistroak –behar diren dilijentziak eginda– eta bestelako agiriak edukitzea, baita egiaztapen eta kontrol ahalmenak behar bezala baliatzeko aukera bermatzen duten eta oinarrietan eskatzen diren kontabilitate-egoerak zein berariazko erregistroak ere.

f) Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.

g) Jasotako fondo publikoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

#### **14. Dirua itzultzea**

Jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da, aurretik dagokion dosierra izapidetu ondoren, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoak ematen badira, eta itzuli beharrekoa zein hori eskatzeko prozedura lege agindu horrek berak 38. artikuluan xedatutakoaren arabera izango da.

#### **15. Arau-haustek eta zigorrak**

Arau-hauste eta zigorre dagokienez, honako hauek xedatutakoa hartuko da aintzat: Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta lege horren araudia (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onetsia).

#### **16. Aplikatzekoa den araudia**

Prozedurari buruz oinarri hauetan arautu gabekoei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoa aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzian (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn –5. zk.– argitaratua) xedatutakoa ere.

#### **17. Publizitatea**

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren diru-laguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

### **Eranskinak**

Gasteizko Udalaren web-orrian edo Euskara Zerbitzuko bulegoan (Fraí Zacarías Martínez kalea, 2; 01001 Gasteiz) daude eskuragarri deialdi honetarako behar diren agiriak.